



Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian

Legé gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

BERTTAN

2006ko abendua
94. zkia. Doan

Boluetako erreserba

Hortzmugaren Evak

Avifes



Oihana Bartra

*"Bertsolaritzan lan handia
egin da eskualde erdaldunetan"*




Karmelo (1915)

Sortu eta urte gitxitara, Bilboko Juventud Vasca (EAJko gaztedia, gaur egungo EGiren aurrekoa) euskara eskolak emoten hasi zan. 1915ean ikasle moltzo handia batu eben Karmelon Alfredo Etxaberen 'Matilde' antzezlanean parte hartzeko. Kantuan egin eben umeok. Sasoi hareetan euskal abertzaletasunaren ideiak lau axetara zabaltzeko modu egokia izan zan teatroa.

Argazkia Iñigo Camino eta Luis de Guezalaren 'Juventud y Nacionalismo Vasco' liburutik hartuta dago, Sabino Arana fundazioak argitaratutakoa.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Boluetako txoriak	5	▶ Kirolak. Ibai Barasoain	24
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Mendia: Beratza	25
▶ Avifes	10	▶ Hezkuntza	26
▶ Jubilatuak euskara ikasten	12	▶ Hortzmuga	28
▶ Elkarrizketa: Oihana Bartra	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19		

Eskolan umiek iketza ekarten dabenari kantaten ta kartak eskribiduten ifini dauriez kostunbrie dan modure. Neuk be hareri ta eskatu ta ahal bada ekarrikotzugu negoziadxoan ibiltzen direzen beste ekarrieroeri be (Hiru Erregiek ta Papanoel ta Aiuntamentue ta zaraman topaten ibiltzen dan lagunari) urte guztidxetan bialtzen dotziet kartie urte barrireko behar dotezenak ta gurarixun bet be ekarteko-edo.

Ta honeik Bertonekoak Gabon Gaberako "kartie" eskatu dostieiez, ba aprobetxauko dot ez karta barridxe eitteko, lehengo urtien eskatu nenduzenekaz zer pasau dan repasateko baino, ze eskatu, beti ibiltzen garez eskatuten, baina enpresa seridxo guztidxetan balantzeak be ein behar ixiten direz.

Orduen. Lehengo urtien eskatu nendun aber Bertonekoeri ekarten badotzie laguntxuren bat ze koittaduek hor ibiltzen direz bakar-bakarrak ta eurek dan-dana ezin daurie kontau. Ta ekarrieroak ez direz txarto portau, ez. Lehengo hiltien txakur periodista fine ekarri zotzieren, internen blogolandia bat montau dotzie, ta ganera esan dostie ondinarren gauze gehidxao datozela bidien, telebisiñoa ta ladedios. Konpañia apur beterako daukie.

Ez nontzien halako gauza handirik eskatuten, konkretuek be ez, holan atxakidxe gitxidxao daukie ez ekarteko. Holan, eskatu nontzien horeik neska-mutikoak Santuxu partien koplta ta bertsotan dabilztenari aurten poztasuntxun bet emoteko, ze ezpabere rimatan ibilteko gogoa joan egin-gojakie ta. Hamen balantzie halan-holangoa, baten bat finalera bialdu, baie txapelik ez. Hori bai, Bertoneko portadan promesa handidxena. 10etik 7 eta Bertonekoeri eskerrak. Umore galdu barik neska-mutilok!

Beste gauze bat eskatu gendune honeiri bilbainoeri zentzun apur bet etortie ta gurien gauzek botaten ez segidutie ixin zen. Hamen kaka! Bota iñoz baino gehidxao ta ganera katxondeoa, Salboko zubidxe gorri ifini gure daurie... Mahatserridxe soloakaz beteta egon zanien baino zokil gehidxao

dekoguz. Dana dala, ekarrieroak baten bat hamen dekogunegaz akordatie ta salbateko ahalegintxue egitea konsegidu daurie, gitxi de, baina zozer bada. Berbarako, hor Boluetan txoridxen habidxe jagoten ta erakusten dabilztenak.

Biherleku fazile ez dotzegu ifini ekarrieroeri, ahagine egin daurie dana dala.

Hamen auzunien tesoron bat topatie be eskatu geuntzen. Ta, han Sarrikueko puntien gogoa ta entendimendue bestion antzera ez darabilenakaz badabilte batzuek hareikana hurreratu guren, lagunduten ta jagoten. Hamen esan gendun inkonprensiñoa zabaldu beharreko tesoroa dala, ta entenditen ez danerantza ahagine eitten dabenak sarri entendimenduen munduen dabilenak egundo topauko ez deittuzen tesoroak topaten deittuz.

Hareik Sarrikuekoak edo, berbarako, hiru andra entzerrau direz aeroportu baten, kaidxola baten, ez da derrepentien entendiduten, baie Evan kontuek hogoto entenditeko modue ixingo da seguruen. Edo 11 andragizon edadekoak entenditen ez dauriena esploraten parau direzenak, hareik be tesoron bat topauko daurie, sarri bizitze guztidxen bisten eukin dabenak barruntau be eitten ez dabena. Hareik baietz entendidu txakur periodisten misteridxoa!

Total, ekarrieroak ez doskuez ekarri gure genduen beste, baie pensau dogun baino gehidxao bai. Iguel aurtengo kartie Bertonekoeri be bialdu biherko dotzegu, honeik eskatu barik be hainbet gurarixu ekarri doskuez ta. Santuxuko entredadoriek be zozer eskatuko loskidxe seguruen.

Tire ba, urte barrireko be lagunek, zentzune, tesoroak ta poztasune... neuk be ondiñoarren dekot gurarixun bet gehidxao, baie hori kunplidu ezkeron hametik urtebetera eingo dogu balantzie. Atzera aittutie be karta politie ixiten da ba!

ANSELMO GINEAREN KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Santutxu auzoan kale bat topatu geinke Anselmo Ginearen izenagaz. Izan be, kale hau Txurdinagako kiroldegitik hurrean dago, eta Iturriaga zeharkalea eta Laurencingo Markesaren kalea batzen dauz.

Beraren izena jagoko Anselmo Ginea Ugalderi 1967. urtea ezker. Gizon hau Abandon jaio zan 1854. urteko apirilaren 1ean, eta hil XX. gizaldia hasi barri zala, 1906. urteko bagilaren 10ean.

Anselmo Ginea Ugalde margolari bilbotar ospetsua izan zan, eta Madrilgo Margo, Eskultura eta Grabatuen Eskola Berezian ikasi eban Federico Madrazo irakasleagaz; bere ikasketak Erroman osotu ebazan. Horrezaz

ganera, Bilboko Arte eta Ogibideen Eskolako irakaslea izan zan, hainbat erakusketa egin ebazan 1884, 1895, 1897 eta 1899. urteetan Madrilgo Arte Ederren Espainiako Erakusketetan, eta Bartzelonako Nazioarteko 1890eko Erakusketan eta Bartzelonako Udal Museoaren 1898. urteko Erakusketan, eta horreetarik hainbaten saria jaso eban.

Marrazkigile aparta zan, eta tonu argi eta gozoak erabilten ebazan bere margo-lanean. Beraren koadroetarik hainbat museoetan eta bilduma pribatueta dagoz. Hainbat eraikin publiko eta pribatu dekoratu ebazan, berbarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren freskoak, eta Sotaren Ibaiganeko Jauregikoak. Haren lanaren etorri-iturri nagusia Bilbo eta Bizkaiko paisaiak osotu eben, eta eurakaz batera hainbat erretratu eder eta galant egin ebazan.

GOTZON LOBERA REVILLA

BOLUETAKO ERRESERBA NATURALA

IBAIZABALEKO ERTZETAN GERO
ETA HEGAZTI GEHIAGO BIZI DIRA

Gure etxeetatik oso hurbil hamaika hegazti bizi dira, Ibaizabaleko ibarren abaroan. Abusuko zubitik hasi eta Etxebarriraino, ibai ertzak eta urak potorro, ahate, antxeta, martin arrantzale eta ur-oiloen bizileku dira azkenaldion. Guk geuk ere ikusi nahi izan ditugu. Horretarako Boluetako Zubibarrira joan gara, Lanius ornitologi elkarteko aditu birekin.

*Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona*



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:

Rurriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004

Tfnoa:

94 473 54 48

e-posta.:

berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA

Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:

Arrate Diez,
Eneritz Ibarrondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez
Ane Zabala

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:

Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,

Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA

PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Ane Zabala

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.900


Azken urteotan itsasadarraren garbiketa lanen emaitzak batetik eta Santa Anan eraikiko duten etxe mordoak izan dezaketen eraginak bestetik bertatik bertara ikusi nahi izan ditugu. Boluetako txoko hone-tatik hainbat hegazti pasatzen da urtean zehar eta egoera zertan den konprobatzeko Lanius ornitologia elkarteke kide birekin bertara hurbildu gara.

Ubarroi handi edo potorro (*Phalacrocorax carbo*) bat arrokatan jarrita eta eskumalara basahate (*Anas platyrhynchos*) talde bat uretan bainua hartzen prismatikoekin ikusi ostean elkarrizketari ekin diogu.

Elkartekoek esan dutenez, itsasadarraren suspertzearekin batera hegazti gehiago dago Boluetako Santa Ana alde horretan, zein, oro har, itsasadarrean. Beraien esanetan

(pus), kopetazuria arrunta (*Fulica atra*) eta martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) ibiltzen dira hemendik. Izan ere, ibai ertzean, Abusuko zubian hasita eta Etxebarriraino badago habia egiten duten txori asko eta hori seinale ona da, lehen hemen ez baitzuten habiarik egiten.

Migel De las Heras eta Juanan Lopezek azaldu digutenez, "iraila amaieran Boluetako zubi honen ondoan berrogeita hamahiru potorro ikusi zituzten, hauek migrazioan zihoazen denak elkarrekin. Hauek habia Bizkaian egiten dute (Izaron) eta irailean migrazioan doaz Andaluzia eta Afrika aldera. Ondoren martxo-apirila bitartean berriro datoz gorantza". Espeziearen arabera alde egiteko epea eta erritmoa ez da berdina, batzuek bizpahiru hilabete behar dute alde egiteko eta beste ba-



tzuek, aldiz, hamabost egunetarako alde egiten dute.

Adituen ustez, "itsasadarra gehiago babestuko bagenu espezie gehiago egongo zen. Batzuetan garbitzearena sasitza kentzearekin nahasten da eta hain justu hori da egin behar ez dena, berton baitago mikroklima mantentzeko modua".

BABESA KENDU

Laniusekoekin Boluetako Santa Anan eraikiko diren etxebizitzetara buruz hitz egin dugu. Migelen iritziak "nik ikusten dudana arazoa jendeak ibai bazterreko zuhaitzak eta sasiak kentzea eskatuko duela da, eta, bestetik isurkinak bertara botatzea. Hemen biziko direnek ez badute hori errespetat-

"duela berrogeita hamar urte animalia gehiago zegoen; gero, industria garapenarekin itsasadarra kloaka bilakatu zen eta orain, berriz, apurka berriz sortzen ari da".

Mahatserriko alderdi horretatik hainbat hegazti mota pasatzen da. Hasteko potorroak edo ubarroi handiak, eta hauek ez datoz lekua polita delako, baizik eta arrainak daudelako. Beraz, adierazle ona da. Baita ere, kaio hanka-horia (*Larus cachinnans*), antxeta mokogorria (*Larus ridibundus*), lertxun hauskara (*Ardea cinerea*), lertxuntxo txikia (*Egretta garzetta*), ur-oiloa (*Gallinula chloro-*



egun ez gara garai hartan bizi ziren egoera zein baldintza berdinetan bizi eta kontrolagarriagoa da. Egun informazio eta txerto gehiago dago".

IKERKETAK

Lanius ornitologia elkartearen hegaztien buruzko azterketak egiten dituzte, izan ere, momentuan hegaztien negu-pasa ari dira ikertzen Bizkaia osoan. Horretarako, koadrikulak egiten dituzte baita arduradunak zonaka banatu ere. Ikerketa hau hiru urteren buruan egiten da, eboluzioa ikusteko. Honez gain irteerak prestatzen dituzte eta esaterako, azken txangoa Santonako behatokira bisita izan da. Lanius elkarteak hogeitaz betetzen ditu aurten eta Bilbon dute egoitza. Elkartearen hogeita hamabost pertsona daude eta ornitologiari jarduteaz gain plataforma bat ere eratu dute eta ingurugiroari buruzko gaietan ere parte hartzen dute. Adibidez, Gasteizen energia eolikoak hegaztiengan duen eraginari buruzko jardunaldiak prestatuko dituzte laster.

Elkarrizketari amaiera ematen ari ginela, buztanikara hori bat (*Motacilla cinerea*) ikusi genuen, beraz, etxetik hain hurbil dugun zubi honetan jarrita benetan gozatzeko aukera dago eta gainera adituekin bazoaz asko ikasteko parada dago. Hau, guri bisitan datozen eta bertan bizi diren hegaztien "hiritarron begiratokia" da.

tzen ibaia babes barik geratu da. Gainera, erribera gehien garbitzen duena ez da araztegia baizik eta ibaiertza eta bertan dagoen landareta. Egia esan, ez dakigu zein punturaino ez duten dena porlanez beteko...".

HEGAZTI GRIPEA

Hegazti gripearri dagokionez, Migel De las Herasen hitzetan, "alarmismo handia nabaritu dugu, hegazti gripea betidanik egon da eta hegaztiekin etengabeko kontaktuan ibili direnak izan dira kutsatuak. Lehen gerrate mundialean, antza, kutsadura hori agertu zen eta larria izan zen, baina

BEGOÑA ETA EUSKERA

Bilbok XVIII. mendearen akabuan eta XIX. mendearen hasieran itotako hiria zen. Eremu libre bakoa, bestela esanda. Orduantxe obra handiak egin zituen hiribilduak eta denak neoklasizismoaren ordenaren barruan egin zituen. Garrantzitsuenak, Begoña eta Bilboren arteko muga-mugan gauzatu zituzten.

MUGALDE NEOKLASIKOA

Gurean arte barrokoa gainbeheran sartu zenean neoklasizismoa ordezkatu zuen arkitektura arloan. Hori XVIII. mendearen azken zatian eta hurrengoaren lehenengo herenean garatu zen. Bilbon ale ederrak laga zituen tendentzia horrek baina asko eta asko hurrengo urteetako gerra gordinetan galdu ziren.

Neoklasizismoak Argien Mendearen arrazoa nagusitu zuen artean, arkitekturan fisika eta mekanikako legeak aplikatuz eta funtzio bakoitzerako tipologia egokiak sortuz. Kanon klasikoek pisu handia eduki zuten, jakina.

Esan legez, asko izan ziren Bilbon altxatutako harribitxi neoklasikoak: antzoki zaharra, Txakurkaleko, Santos Juanes, Santiago eta plaza zaharreko iturriak, Gortazar jauregia, San Frantzisko-ko zubi eskegia, ... Industriagintzan, Pontoiko fabrika, Begoñako lurretan eraikia, bere erota eta guzti. Baina monumental arloan, hiru harribitxi nagusi laga zuen sasoi hark: Plaza Barria, Atxuriko ospitala eta Mallonako kanposantua. Azken biak, Begoñako errepublikarekiko muga-mugan.

Izan ere, XIX. mende hasierako



Mallonako kanposantuko atea.

Bilbo hura Zazpi Kaleetara mugatuta zegoen eta artean espazio hura lepo beteta zegoen. Gutxi gorabehera, 12.000 lagun bizi ziren Bilbon, merkataritzak eragindako lanpostuetan jardunean. Eremu libre bakarra Askao aldean zegoen eta Plaza Barria egite-

ko erabili zuten. Orube berriak mugan bertan topatu zituzten.

ATXURI

Atxuri auzoaren zati bat Bilbo zen eta gainerakoa Begoñakoa. Gizakunde komentuko kanpoko hormetan oraindik ere mugarria dago, alde batera Bilbao eta bestera Begoña markatuta. XIX. mendearen hasiera arte Bilboko ospitalea Santos Juanesen zegoen, baina bertako ardurdunek proiektu berria egiteko agindu zuten, obra handia, ikusgarria eta Europako osasungintzako irizpiderik aurreratuenaz baliatuz diseinatutakoa.

Plymouth eta Portsmouth hirietako ospitaleak eduki zituen gogoan Benito Gabriel Orbegozok 1818an bere proiektua aurkeztu zuenean. Tridente itxurako eraikina pentsatu zuten, gela luze zabalekin. Gaixoak sexuka sailkatu eta gaixotasunen arabera

banatu behar zituzten. Eurentzat, beheko solairua baino ez zuen gorde. Goikoetan, bulegoak eta enplegatuentzako lokalak ipini zituen.

Adituek idatzi dutenez, eraikin horretako bertuterik handiena argitasuna eta bentilazioa dira, sasoi hartan hori ez baitzen batere normala. Aurretantzean, oster, ospitale berri guztie-



Atxuriko ospitala XIX. mendean. Gaur egun Lanbide Heziketako institutua da.

tan urrezko irizpide bihurtu ziren.

Kexarik ere ei zen falta. Berbarako, aurre-aurrean Victora de Lezea familia boteretsuaren jauregia zegoen. Leinuaren burua, Manuel, gutun baten bidez kexatu zen esanez ba ze ospitala bere etxetik hurregi zegoela eta gaitxoan gelak aurrealde nagusiari irekita egoteagatik bere senideak kutsatzeko arriskuan zeudela.

Arazoak arazo, ospitala Orbegozok pentsatu bezala eraiki zuten. Gaur egun ere horrela ikusten dugu Atxurin, institutu bilakatuta. Oraindik ere igartzten da bere indarra, XIX. mende hasiera hartan Bilboko eraikinik handiena izan zela.

MALLONA

Ospitalean konpontzen ez zutena kanposanturako bidean jartzen zen.

Lege Zaharreen hildakoak elizan bertan lurperatu izaten zituzten, familiarren edo etxearen hobian. Hala ere, XVIII. mendetik aurrera Espainiako erregeek kanposantuak sortzeko agindu zuten, higienikoagoa zelakoan. Hego Euskal Herrian XIX. mende hasierako gobernu liberalek sakatu zuten hilerriak sortu arte. Bilboko, gorabehera batzuen ostean, Mallonan eraikitzea erabaki zuten.

1828an Juan Bautista Belauntzar arkitektoari agindu zioten Mallonako kanposantua proiektatzea. Egin ere egin zuen. Eta zelako proiektua gainera, sarbide, arkupe, plazatxo, hilobiratzaileen etxea, kanposantua, lorategia, arkupedun galeria, ermita eta hezurleku eta guzti.

Bere horretan egin zuten, plaza eliptiko itzel bat izan ezik. Adituek

esan dutenez, Mallonako kanposantua Bizkaiko hilerri berrien eredu bilakatu zen. Hogei bat egin zituzten hurrengo urteetan bere formak aintzat hartuta. Emankortasun horren bestaldean, hala ere, bere bizitzaren laburra dago. 1868an zabaldu egin behar izan zuten hildako gehiago hartzeko bere baitan. Orduan eraiki zuen Francisco Oruetak Mallonako gaur egungo futbol zelaira sartzeko atea, bere goialdean heriotzari lotutako hamaika irudi erakusten duena.

Gaur egun Mallonako kanposantu zaharretik zati txiki bat besterik ez da geratzen, ate printzipala eta bere inguruak. Baina nahikoa dira ulertzeko zergatik Richard Ford bidaiariak esan zuen 1835ean Mallonako hilerriak "kanposantuetan aditu diren guztien miresmena dauka".



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

AVIFES, GAIXO PSIKIKOEN ALDEAN

Gaixotasun psikikoa dutenek eta lagunek Sarrikuetik egiten dute lan

Gaur egun ezagunagoak dira adimen gaixotasunak baina oraindik zeharka begiraten zaio adimen gaixoari eta horrek oztopo ugari sortzen ditu. Gainera, lehen jende gutxi jasaten bazuen, gero eta gaixo psikiko gehiago dago gaur egun. Laguntza emateko lan handia egiten dihardu Avifesek, gaixo psikikoek eta euren lagunek alegia.

Testua: Ixaso Perez
Argazkiak: Berton



AVIFES

Avifes irabazi asmorik gabeko elkar-
tea da, eta erabilpen publikoko iza-
era du 1986tik. Adimen osasunera-
ko baliabideak urriak zirela ikusita,
zenbait gaixoen senideak elkar-
baten batu ziren, gaixotasun hauen
duintasuna aldarrikatzeko eta
baliabideak eskuratzeko asmoz.

ZERTARAKO
Bizkaiko gaixo psi-
kikoei eta euren
senideei bizitza
osorako eta egoera
bakoi-tzari egoki-
tutako bermeak
erraztu nahi dizkie
Avifesek, norbera-
ren autonomia,
bizi kalitatea eta
integrazioa lortze-
ko. Horrela, eskubide guztiak seguru-
tu gura dizkiote gaixoari. Xede hori
bete ahal izateko programak eta zer-
bitzuak garatzen dituzte, kasuan
kasuko laguntza emanez.

Elkarte horrek Zumalakarregi ikas-
tetxea izan zen eraikinean dauzka

bere egoitza eta tailerrak, baina lan
Bizkaia osoan egiten du. Gainera
beste herrialdeetako elkarte batzue-
kin ere elkarlanean dihardu.



Avifesek ahalegin handia egin du
gaixo psikikoen integrazioa soziala
lortzearen, eta bide horren saria
jaso dute. 2004ko maiatzean ISO
9001-2000 kalitate ziurtagiria jaso
zuen. Gaixo psikikoen eta euren
senideen errekuperazio psikosozia-

lerako, lan munduan berriz sartzeko
eta bizi kalitatearen hobekuntzara-
ko zerbitzuen kalitate maila ona
adierazten du horrek.

GEROARI BEGIRA
Azken urteotan
aurrerapenak izan
arren, gaixotasun
psikikoa duten
pertsonek bazter-
keta soziala, estig-
matizazioa eta
euren oinarriko
eskubideei errespe-
tu falta pairatu izate-
dute. Zalantza
barik, aurrerapen
nabariak gertatu
dira arreta psikiatri-
koari dagokionez,
manikomio eredu-
tik aparte bestelako
adimen osasunera-
ko zerbitzuak gara-
tuz. Hala ere, oinarri sozialeko
baliabideak hedatzea ezinbestekoa
da, Avifesen ustez, jendartetik ber-
tatik egokia litzatekeen arreta eman
ahal izateko.
Nabarmenezkoa da gazteekin ger-
tatzaren diren diagnostikoak. Ume-

gazteen trastornoetarako dagokienez egin
zitezkeen diagnostiko azkarra eta
bere tratamendu terapeutikoak gain-
ditzeke dauden ikasgaiak dira.
Pertsona hauen estigmatizazioari
aurre egiteko, Avifesekoek uste dute
gaixotasun psikikoa duten pertsonen
jendartean parte hartu behar dutela
eta beren benetako egoera agerian
erakutsi aurre-epaiak eta estereoti-
poak ezabatu ahal izateko. Horretara-
rako behar-beharrezkoa litzateke
arreta komunitarioaren eredu-
garatzea, hau da, zaintzapeko etxe-
bizitzak, barne-aisialdi programak
garatzea, familiaren (senitartekoen)
benetako partehartzea eta jendartea
sentsibilizatzea, besteak beste.

EGUNIK HANDIENA
Elkartekideentzat urteroko Adimen Osasunaren nazioar-
teko eguna hitzordu handia da. Urriaren 10ean, urtero
legez, kalera irten ziren eta hainbat informazio guneak



Zerbitzu eta programak

Bazkide kopuru esanguratsua dauka gaur egun Avi-
fese: 1.340 bazkide. Baina horiez gain erabiltzaile-
ak daude, 250 baino gehiago une
honetan. Zerbitzuak ematea eta
programak aurrera eramatea 35
profesionalen esku dago, gehien-
gehienak (%80) zuzeneko atente-
tzioa ematen dutenak. Gainera, ez
da falta boluntario lan egiten duten
hogei pertsonen aportazioa ere.
Eskaintzen dituen zerbitzu eta pro-
gramak ondorengoak dira:



kokatu zituzten herri eta hirietan. Baita leku bakoitzean
hitzaldi bana eman ere. Gizartearen kontzientziatze-
ari lan garrantzitsua deritzote eta horretan ezin dute kale
egin.
Beste elkarte askori gertatzen zaion bezala, diru pre-
mian izaten dira. Sos iturriak ugariak dira kasu honetan.
Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-entzina sailarekin,
Eusko Jaurlaritzako Osasun sailarekin eta hainbat udale-
kin itaun iraunkorrak daukate. Era berean, Bilboko
Udalaren eta BBKren diru laguntza bana jasotzen du.
Inork interesa baleuko eta Avifes elkartearekin harrema-
netan ipini nahiko balu, hona hemen bere helbidea:
AVIFES (Asociación Vizcaína de Familiares y Enfermos
Psíquicos), Sarrikue auzoa, z/g. - 48007 Bilbo. Telefona:
944456256

- Informazioa eta orientazio zerbitzua.
- Eguneko zentruak: Bizkaian sei daude (Bilbon, Santurtzin, Urtuellan, Zallan, Zornotzan eta Gernikan) eta bertan 210 pertsona laguntzen dituzte.
- Bizilekuan arreta zerbitzua: 50 senitartekoei ematen zaien zerbitzua da. Talde bik Santurtzin, Portugaleten, Bilbon eta Gurutzetan egiten dute lan.
- Zaintzapeko Etxebizitza Zerbitzua: Bilbon bost etxebizitza daukate, eta bertan 25 pertsona bizi dira.
- Erabiltzaileentzako berme psikologiko zerbitzua.
- Senitartekoentzako bermea:
 - *Senitartekoen eskola: senideentzako informazioa ematen da bertan.
 - *Nork bere buruari laguntzeko taldeak: senideen arteko elkar bermea lantzen da.
- Lege-Aholkularitza Zerbitzua.
- Aisialdi programak: aisialdi taldea, egonaldiak, asteburuko irteerak, bestelako irteerak...
- Sentsibilizazio programak: hitzaldiak, aldizkaria, unean-unean kanpainak.

EUSKARA IKASTEKO EZ DAGO ADINIK

SANTUTXUKO HAMAICA JUBILATU EUSKARA IKASTEKO ESKOLETARA JOATEN DIRA



Aurreko urteetan bezala, Santutxuko Jubilatutako Elkarteak, Eragintza Kultur Elkartearen laguntzarekin, bazkideentzako euskara ikastaroa antolatu du. Guztira, denbora libre asko eta ikasteko gogo gehiago dituzten adineko hamaika pertsonako taldea osatu dute. Haien gazte garaian ikasteko aukera eduki ez zutelako, edota gaur egungo euren aitite-amama lanetan hobeto jarduteko interesgarria ikusten dutelako, euskara ikasteko arazoak eta ilusioa denen artean betetzen dituzten urte kopurua baino gehiago dira.

*Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Felisa, Argia, Bienve, José, Rosa... astean birritan euskara ikasteko biltzen diren hamaika jubilatuetako batzuk dira; denak 70 urte inguru eta euskara ikasteko eta ondo pasatzeko gogo askorekin. Astearte eta ostegunetan, Mainer euren irakaslearekin biltzen dira eta, norberaren kontuak konpartitu eta gero, hiztegiari, aditzei...ekiten diete gogo onez.

HAMAICA ARRAZOI

Baina zerk bultzatu ditu aitite-amama hauek euskara ikasten haste-

ra? Ba gehienentzat, hain zuzen, aitite-amama bilakatzea izan da arrazoirik nagusiena, ilobekin euskaraz hitz egiteko aukera galdu nahi ez izatea aski garrantzitsua izan baita eurentzat kasurik gehienetan.

Felisa, adibidez, orain dela hiru urte hasi zen euskara ikasten eta bere esanetan "ilobekin euskaraz hitz egin ahal izatea gustatuko litzaidake". Félix ere, ilobak euskaraz entzutean animatu zen azkenik hainbeste urtetan ikasi nahian ibili zen euskara klaseak jasotzera: "Lehenen-

go Radio Juventudek euskara ikasteko ematen zituen irratsaioekin saiatu nintzen, baina lana zela eta ezin nituen jarraitu; geroago Aurrezki Kutxak egunkarietan argitaratutako fitxekin saiatu izan naiz ere, orain arte"

Besteentzat ere, euskara ikastea aspaldiko nahi bat izan da; batzuk txikitan hitz egiten zuten hizkuntza berreskuratu nahi izan dutelako, edo betidanik euren bezala sentitu baina ulertzeko eta hitz egiteko gai izan diren hizkuntzara hurbildu nahi

izan direlako.

Balbinak adibidez, txikia zenean euskaraz hitz egiten zuen, baina bere familiarekin Galdakaotik Bilbora etorri zenean ahaztu egin zuen: "Orain, udan Busturian nagoenean, kartetan nire lagunekin, euskaraz zerbait esateko gai izaten naiz,

ikasten. Bienbidok, bestaldetik, bizikletarekin egiten zituen ibilbideetan euskara entzuteko aukera izaten zuen: "Asko gustatzen zitzaidan bertsolariak eta jendea abesten entzutea eta horregatik ni etxean ikasten saiatu izan naiz. Orain telebistan entzuten dudana ulertzen badut oso

Eta horrela astearte eta ostegun goizetan, Luis Luciano Bonaparte kaleko euren egoitza berriztatzen duten bitartean, auzo etxean batzen den hamaika laguneko taldea osatu arte. Ordu eta erdiz Mainerrekin batera esaldi labur erabilgarriak ikasten dituzte, ahoz zein idatziz, eta



baina hobeto egin gura nuke", esan du.

Argiak oraindik ere euskaraz hitz egiten du etxean baina hobetzeko asmoarekin apuntatu zen ikastarora eta dagoeneko hiru urte daramatza

harro sentitzen naiz, kar, kar, kar", aitortu du. Josék, taldeko adintsuenak, euskaraz ikasi zituen lehenengo hitzak 'atera bi' izan zen, Etxebarriko lagun batek txikitoak eskatzera animatzen zuenean.

batez ere ondo pasatzen dute. Mainerren esanetan, "Taldea giroa sortzea zeregin zaila izan da. Batzuek bada-kite berbetan eta beste batzuek ez zekiten ez kaixo ez agur esaten. Behin hori zehaztuta hiztegi apur



Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiozko dekorazio deribatutak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1. ezk
Tlfnoa: 944336916 -Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko Iturriaga 96.
herriko taberna



Gosari bereziak:
Kalea+pintxoak 1,50 €.

Euskal Herria
AURRERA!!





batekin hasi ginen, beti ariketak arbelean eginez eta gauzak behin eta berriz errepikatuz. Eta orain oso giro atsegina dago, heldu bezain laster elkarri euren kontuak kontatu, lanean ere elkarri lagundu, eta nire asmorik garrantzitsuena lortzen dela uste dut, egunero pozik eta zerbait berria ikasi eta gero etxera bueltatzea".

ADIN KONTUAK

Bestalde, Mainerren ikasleak edadekoak izateak eta ikasteari aspaldi utzita egoteak berezitasun nabarmenak eransten ditu: "Arbelan idazten dudana dena maiuskulekin idatzi behar dut bestela ez dutelako ondo ikusten. Eta gero gauza guztiak asko errepikatu behar zaizkie, egun batek bestera ahaztu egiten dituztelako, baina lar astuna izan barik. Hala ere egiten ditugun ariketak oso sinpleak eta kalean erabili ahal dituztenak izaten dira", esan du. "Kontuan hartu behar da, ni, adibidez, 74 urte izanda, umetan eta gaztaroan ikasteko aukerarik ez nuela izan eta ikasi ditudan gauza gehienek 50 urtetik aurrera ikasi ditudala. Burua ez da gaztearena, noski", azaldu du Gotzonek.

Eta horregatik ere hainbeste gusatzatzen ez zaizkien gauzak ere badaude, aditzak, adibidez, Felisaren kasuan bezala: "Niri txikitatik aditzak ikastea oso gogorra iruditu zait baina euskararekin oraindik gehiago", edota ahoskera: "Gotzonek atzo behin eta berriz errepikatu behar izan zuen zuhaitza hitza, azkenean asmatu zuen arte!", esan du Mainerrek. Eta Rosak arrazoia ematen die denei: "Ni orain dela bi hilabete hasi nintzen eta nahiz eta gogo handiak izan, euskara hizkuntza zaila dela iruditzen zait."

Horrez gain, euskara ikasteagatik ordaindu behar izanarekin ere ez daude konforme. Euskara ikastea zazpi euro eskatzen die hilero, nahiz eta Udalak diru laguntzaren bat ematen duen, eta horrez gain testu liburuak ordaindu beharko lituzkete, ez balitz izango Mainerrek bere fitxak erabiltzea nahiago duelako, bere ikasleek diru gehiago gastatu ez dezaten.

"Bizitza osoa gure gazteek ikas dezaten lanean eman eta gero, guk ikasteko aukera dugunean ordaindu behar dugu. Udalak kontu hartu

beharko luke eta gure hizkuntza ikasteko eskubidea badugula onartu eta lagundu", argitu du Bienvek. Eta Gotzonek: "Kontutan izan behar dute guk ez genuela ikasi ez zigutelako aukerarik eman".

Eta behin euren ametsa aurrera eramateko lehenengo pausua eman dutenean, lan egin eta emaitzak itxarrotea baino ez da gelditzen. Euren burua ikasturte honen bukaeran imajinatu ezker denen itxaropenak antzekoak dira "orain baino gehiago ulertu eta zerbait hitz egitera animatzea" eta hori arinago lortzeko Bienvenidok eskaintza bat luzatzen die euskara ikasten dauden aitite-ama-men iloba guztiei: "Gurekin euskaraz egin dezatela, guk ordainean paga igoko diegula, kar, kar, kar." Eta, batek daki, horrela ere, agian uste baino lehenago, Balbinak Busturiko bere lagunekin kartetan euskaraz egingo du, eta José bere herria den Herrera de Pisueragan, berak esan bezala, klasetxoren bat emateko gai izango da, eta Felisa, Gotzone, Argia, Bienve eta gainontzekoak klasetik irten eta ilobekin euskaraz komunikatzeko gai izango dira.

2006ko abendua - 94. zkia.


e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

OIHANA BARTRA

"Bertsolaritzan lan handia egin da eskualde erdaldunetan"

Begoñako errepublika zaharreko bertsolaritzak zer kontatua dauka azkenaldion. Alde batetik, Arkaitz Estiballesek laugarren egin zuen abenduaren 16an Bizkaiko Txapelketaren finalean. Bestetik, Oihana Bartra finalurrekoetara heldu zen. Santutxuko bertsolari gaztearekin egon gara txapelketaren gainean gehiago jakiteko eta bere bertso jardunaren berri izateko. Jator hartu gaitu eta jatorrago erantzun. Gurea bezalako erdal giroko txokoetan ere bertsolariak erretzen ari dira.

Testua: Eneritz Ibarondo
Argazkiak: Iñigo Azkona



Noiz hasi zinen bertsoan?

Lehenengo ikastolan bertso laritza ematen genuen, euskara klasearen barruan. Bosgarren mailan edo. Eta gero, ez dakit, urte pare bat geroago edo eskolaz kanpoko ekintza moduan hasi ziren ikastolan bertso laritza eskolak ipintzen. Han Juanjo Respaldizarekin hasi nintzen. Bertan ere gustura ibili nintzenez Santutxuko bertso eskolan hasi nintzen, 1998an edo.

Nori bota behar diogu zu orain bertsoan ikustearen 'errua'?

Jo, jende askori. Nire aitari, bera ere bertozalea zelako, eta delako; eta gero Juanjo Respaldizari berari be bai. Santutxuko bertso eskolan lehenengo Iñaki Aurrekoetxearekin hasi nintzen; eta gero, oraingo bertso eskolako Arkaitz Estiballesi eta jende guztiari.

Santutxuko bertso eskola nahiko ezaguna da bertso munduan. Gaur egun bertso eskolek zein eginkizun betetzen dute?

Inportanteena, bertsoan ikasi nahi duen jendeari irakastea, bai bertsoan, edo bai gero gai jartzaileak sortzeko, edo epaileak,... Eta gero baita ere, euskalduntasuna sustatzeko. Azken finean, ni bertsoan hasi nintzenean, nire bizitza ez zen ehuneko ehunean euskalduna, eta hor ere, neurri handi batean, euskaldundu naiz beste zentzu askotan.

Txapelketetarako saltoa noiz eman zenuen?

Bertso eskolan hasi nintzen urte berean, nire lehenengo txapelketan parte hartu nuen, BBK txapelketan. Eskualdeka jokatzeko da, taldeka. Ez zen izan ni apuntatu nintzela txapelketa batera. Hura 1999an izan zen, otsailean. Eta gero, handik pare bat urtera edo urte batera, Bizkaiko eskolarteko txapelketara aurkeztu nintzen. Hortik aurrera, gelditu barik.

Aipatu dituzun txapelketa horietan, sari asko lortu dituzu...

Nahiko suertea eduki dut zentzu horretan. Batez ere gazte sariketetan. Nire lehenengo txapela, Bilboko txapela izan zen; hori Bizkaiko eskolarteko txapelketaren barruan bilbotar



onenari ematen zioten. Zorionez, sari hori desagertu da. Eta gero, lehenengo txapela bat-batean izan zen Bizkaiko eskolarteko txapela, birritan lortu nuena. Ondoren, gazte sariketak: Osinalde sariketa, plazatik gaztetxera, Bagare,... Suertea eduki dut.

Bizkaiko txapelketa nagusiarri dagokionez, aurten izan da parte hartu duzun hirugarren aldia. Zelan ikusi duzu zure burua?

Orain, pixka bat hotzean begiratuta,

hobeto. Aurten poto bat egin dut semifinalean eta, bueno, pena izan da. Sentsazio apur bat arraroa eduki dut. Baina, jeneralean begiratuta eta pixka bat hotzean begiratuta, pozik egoteko moduko txapelketa egin dudala uste dut.

Aurreko txapelketekin alderatuta...

Bai, batez ere hori, besteekin konparatuta ikusi dudalako apur bat garatzea lortu dudala, eta bueno, ba pozik.

Finala ikusten egongo zinen, noski...

Bai, eta gozatzen.

Eta zer iruditu zitzaizun?

Niri oso saio polita iruditu zitzaidan. Ba zegoen duda hori, ea ze maila eman ahal zuten Igor Elortza eta Unai Iturriaga gabe, baina nik uste dut oso ondo bete zutela papera zortzi bertsolarietara. Jende guztia oso pozik irten zen, eta emaitzarekin ere pozik.





Txapeldun berria?
Merezitakoa, nik uste.

Getxoztar batek txapela jasotzeko gune erdaldunetan bertsolari onak ere badaudela erakusteko balio du?

Nik uste dut oso adierazgarria dela Xabik txapela lortzea, ikusi delako azken urteotako eboluzioa. Orain dela urte batzuk igual ezingo zen pentsatu ere egin Getxo inguruko pertsona batek edo alderdi erdaldunetako pertsona batek Bizkaiko txapela lortzea. Baina ikusi da lan asko egin dela bertsolaritzan gune erdaldunetan. Eta Getxon zehazki lan handia egin dute bertako bertso eskolan-eta. Orain bere fruituak jasotzen ari dira.

Gaia apur bat aldatuta, aurtengo

finalean bi emakume ikusi ditugu. Emakumea eta bertsolaria aipatuta, zer esango zenuke?

Lehenengo finala da emakume bat baino gehiago dagoela. Hor ere ikusten ari da aldaketa gertatzen ari dela. Eta emakume gehiagok aukera eduki dute. Oihane Enbeita ere finalean sartzeko atarietan egon da, eta nik uste dut gero eta emakume gehiago datozela fuerte bertsotan, oso ondo egiten dutenak. Hemendik aurrera bi emakume baino gehiago ikusiko ditugu finalean.

Azkenaldian bertsolaritzaren boom bat gertatu da berriz ere...

Bai, nik uste dut batez ere Euskal Herriko finalaren harira, BECeKo finalaren ildotik. Ez dakit zehazki orduan hasita edo hori baino apurt-

xo bat arinagotik baina boom bat izan da. Eta hor ikusi da ere, Bizkaiko finalean zelan Euskalduna lepo bete den eta 600 pertsonentzako beste gela bat jarri behar izan duten, Durangoko Azoka hasi orduko ia ez zegoen sarrerarik,... Lan handia egin da eta bertsolaritza osasuntsu dagoela begi bistan dago.

Bukatzeko, non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Orain nagoen lekutik oso urruti ez behintzat. Nik jarraitu nahi dut orain arte bezala, plazak egiten, nire inguruan edo deitzen nauten lekuetan eta herrietan kantatzen; bertsoekin gozatzen ahal dudana heinean; eta jendea ezagutzen; eta gero txapelketa lasitasunez hartu. Ez da nire helburua honetatik bizitzea...

Bederatzi galdera labur

Hobby bat?: Saskibaloia.

Liburu bat?: Mesillan irakurtzeko daukadana.

Abesti bat?: 'Kupela' (Epelde eta Larrañaga).

Diska bat?: Berri Txarrak bat.

Filme bat?: 'La vida es bella'.

Janari bat?: Arrautza frijitua.

Amets bat?: Amesten jarraitzea.

Mendia ala hondartza?: Hondartza.

Bertsolari bat?: Andoni Egaña.

Kaleetako Gabon argiak, apaingarri ederrak ala alferrik gastatutako dirutza?

JUANMA
(SANTUTXU)

BETI ESATEN DIGUTE ENERGIA AURREZTEKO ETA GERO EUREK SEKULAKO DIRUTZA GASTATZEN DUTE GABON ARGIETAN. BATEZ ERE GRAN VÍA ALDETIK. POLITA BADA, BAINA APUR BAT GUTXIAGO IPINITA, HOBETO.



ESMERALDA
(SANTUTXU)

EDERRAK DIRA, BAI, BAINA EZ DIRA BEHARREZKOAK. PLANETA PIKUTARA BIDALTZEN ARI GARA LEHENGAIK AGORTUZ. MADRILEN EGON NAIZ ETA HAN ARE ASTAKERIA HANDIAGO DA.



OLGA
(SANTUTXU)

IZAN, POLITAK DIRA. EGUNOTAN JARRI BEHARREKOAK DIRELA EMATEN DU BAINA NIRI GABONAK EZ ZAIZKIDANEZ GEHIEGI GUSTATZEN DIRU HORI BESTE ZER EDOZERTAN GASTATZEA EGOKIAGO LITZATEKE.



ROBER
(SANTUTXU)

POLITAK DIRA ETA GEHIEGIERIA ERE BADIRA. EGUNAREN ARABERA. BATZUETAN PENTSATZEN DUZU, 'ZELAKO POLITAK!' ETA BESTE BATZUETAN, 'ZELAKO DIRUTZA GASTATZEN ARI DIREN!'




LUISA
(ABUSU)

ONDO DAUDE. EGIA DA NEURRI BATEN ALPERRIK EGINDAKO GASTUA DIRELA, BAINA EDERTO DAUDE.



PABLO
(ABUSU)

ARGIRIK GABEKO GABONAK EZ ZIREN BENETAKOAK IZANGO. GABON ARGIEK PRESENTZIA ASKO IGARTZEN DA.



MARI JOSE
(TXURDINAGA)

BEHAR-BEHARREZKOAK EZ DIRA. APAINGARRI EDERRAK DIRA BAINA BEHARBADA AZKEN HAMABOST EGUNETAN IPINITA NAHIKOA DA. BAINA ARGI BARIK IKUSTEA TRISTEA IZANGO LITZATEKE.



IVAN
(TXURDINAGA)

GABON APAINGARRIAK EZIN-BESTEKOAK DIRA, DERRIGORREZ JARRI BEHAR DIRA, GABONAK DIRELA KALEAN ERE IKUSTEKO.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Uribarriko eskoletako plazako lanak herritarren protestak eragin ditu

Bilboko Udalak hasitako obrek espazio libre gutxi utziko dutela salatu dute

Uribarriko herritar askoren haserrea 'oztopo arkitektonikoez' bete egingo eragin dute eskoletako plazako lanak. Azaroaren 24an hasi zirenetik ehunka lagunek, Gure Etxea auzo elkartearen babesaz, protestatu egin dute plaza 'oztopo arkitektonikoez' bete egingo dutelakoan. Bilboko Udalak umeentzako olgeta gune bi eta oholezko jesarleku luze handi bat paratu gura ditu, pergola baten gerizan.

Hitzetik hortzera dabil egunokaz Uribarrin eskoletako plazako lanen kontua. Bilboko Udalak auzoko eremu liberrik inportanteena bestela atontzeko obrak hasi ditu, barruti kontseiluaren oniritziarekin. Herritarrek, ostera, ez dagoz batere pozik eta auzo elkarteak berak sinadurak batu ditu proiektuaren aurka.

Azaroaren 24an hasi ziren lanak eskoletako plazan. Bilboko Udalak umeen olgetetarako espazio bi egokituko ditu. Arbolen azpian jesarlekuak paratzeko asmoa ere badaukate. Baina jesarlekurik ikusgarriena beste bati zango da, luze-luzea izango da eta. Haren gainean pergola bat altxatuko dute herritarrek gerizan egon daitezela.

Jakina, obra horiek lur azpiko hodiak berrizatzeko eta espaloiak zabaltzeko aprobeztatuko dituzte.

AUZOAK KEXU

Bere 1.720 metro koadroko azalarekin, eskoletako plaza Uribarriko espazio liberrik zabalena ez ezik erabiliena ere bada. Horregatik, auzotarren artean harridura eta haserrea nagusitu ziren azaroaren 24an, ustekabeen plazako lanak hasi zirela ikusi zutenean. Egun baten 800 lagunek protesta agiria izenpetu zuten.

Uribarriko Gure Etxea auzo elkarteak bideratu du protesta. Euren iritziz, proiektua Udaletik plazara joan da zuzenean, herritarrei parte hartzeko aukerarik eman barik. "Ez informazio publikorik



ezta lehiaketa publikorik ere ez. Zuzenean Fhimasa enpresari agindu diote 300.000 euroko obra bat egiteko", salatu du auzo elkarteak.

Herritarren iritzia entzun ez izanari leporatu dio auzo elkarteak oraingo haserrealdia. "Auzoko hamalau elkarteak, ehunka lagun sinadurak, gazte zein jubilatuek ezetz esan diote proiektuari. Herritarrek ez dute nahi plaza itxi, txiki eta labirinto itxurakoa, txakurrei bakarrik balio zaizkien lorategiduna", nabarmendu dute auzo elkarteek.

Gure Etxeak helegite edo errekurtsioa paratu du Bilboko Udaletxean obra hau egiterakoan derri gorrezko baldintzak proiektua

jendaurrean jarri, alegazioetarako epeak, lana esleitzeko lehiaketa,...- bete ez direlakoan. Barruti kontseilura ere alternatibak eraman dituzte.

PROPOSAMENA

Auzo elkarteak bestelako plaza bat eskatu dio Bilboko Udalarari. "Jakirik eskoletako plaza gaur egun txikia dela Uribarriko 11.000 bizilagunontzat, plaza berria zabalago, erabilgarria, espazio libreduna eta edonondik modu errazean sartzeko modukoa izan beharko litzateke". Alde horretatik, Matiko eta Trauku kaleetara zabaltzea ere eskatu dute.

ANTENEN KONTRAKO PROTESTAK.-

Abenduan ere jarraitu dute sakelako telefonoen antenen kontrako mobilizazioak Santutxun. Azaroan hasi ziren eta harrez gero martitzenero ehunka lagunek manifestazioa egin izan dute auzoko kaleetatik. Hitzordua Carmen plazan jarri dute arratsaldeko 8.30ean hasita.



ARKAITZ ESTIBALLES, LAUGARREN.-

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean parte hartu zuen beste behin Arkaitz Estiballesek eta laugarren postua lortu zuen. Galdakoztarra aspalditik bizi da gurean eta Santutxuko Bertso Eskolan jarduten du. Dudarik ez, bizkaitar bertsolarien artean punta-puntan dabil. Haren aurretik, Xabi Paia txapeladuna, Etxahun Lekue eta Iratxe Ibarra sailkatu ziren.



13. AUTOBUSAK IBILBIDE BERRIA.-

Txurdinaga eta San Ignazio auzoak lotzen dituen 13 zenbakidun autobusak ibilbide berria dauka Santutxu eta Boluetatik Karmelo kaleko obrak direla medio. Gainera, orain unitate gehiago jarri dituzte zerbitzu horretan eta, horren ondorioz, 15 minututik 12 minutura jaitsi da sarritasuna.

URTARRILA-OTSAILA

MALLORCA	252 Euro
TENERIFE	330 Euro
LANZAROTE	324 Euro
LONDON	218 Euro
PARIS	245 Euro

mikelizargi@euskalnet.net

Izargi Bidaiak
GRUPO STAR VIAJES
www.ibiltari.com



ADI Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza




BERBALAGUNAK IRUÑA-VELEIAN.-

Santutxuko Berbalaguna proiektua bizi-bizirik dago eta horren erakusle lehengo abenduaren 17an Iruña-Veleiara egindako bisita. Deustuko eta Getxoko berbalagunekin batera egin zuten bisitaldia eta erromatar garaiko hiriko hondarrak ikusteaz gain, bertan agertutako euskarazko berben gainean ere azalpen jakingarriak entzun zituzten.



INFORMAZIO BULEGOA ETXEBARRIAN.-

Bizkaiko Foru Aldundiak informazio bulegoa paratu du Etxebarria parkean, biribilgunetik hurrean, Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbideen bulebar berriaren gainean informazioa emateko. Bertan dauzkate obrako planoak, baita epeak eta gainerako xehetasunak ere. Bulegoa behin-behinekoa da.



TRANBIA ZAHARREKO BIDEA BERRITZEN.-

Bilboko Udalak datozen hilabeteotan amaituko ditu Begoñako tranbia zaharren bidea konpontzeko lanak. Paseorako atonduko dute eta irtenbide egokia emango diote Bilintx kalera. Gainera, ondoko harresia indartu eta sendotu dute, baita lur azpiko hodiak sartu ere.

Salbeko zubia eskultura legez atonduko du Guggenheim museoak

Daniel Buren artistaren proiektu bat gauzatuko du bere hamargarren urtebetean

2007an hamar urte beteko dituela ospatzeko, Guggenheim museoak alboko Salbe zubia artean bihurtzeko erabakia hartu du. Hiru artista gonbidatu zituen proiektu bana aurkezteko eta azkenean Daniel Burenena hautatu dute. Salbeko zubia gorritz jantziko da aurrerantzean.

Burenen proiektuaren azpian ideia bat datza: Frank Gehryk museoaren eta zubiaren artean sortutako harmonia perfektua desitxuratzen duen elementu bakarra altzairuzko arku da, "bisualki ez baitago museoaren dotoretasunarekin lotuta". Horregatik, bere esku-hartze artistikoak zubiaren egitura eraldatu nahi du. Kolorezko estalkia paratu gura dio gainean, eskultura bailitzan.

Gorri-gorria da Burenen hautatutako kolorea, zubiko berdearekin kontraste handia egingo duelakoan. Ertzetan marra zuri eta beltzak ipiniko dituzte. Argiak ere izango ditu, batzuk estatikoak eta beste batzuk ertzetan, mugikorak.



mahai batek aukeratu bazuen ere, Guggenheim museoako arduradunek argi utzi nahi izan dute erabaki hori bat datorrela herritarren iritziarekin. Izan ere, azken asteotan hiru proiektuen artean bozka emateko aukera eduki dute museo-ko bisitariak eta Burenen ideia gailendu da.

Beste biak Jeny Holzer eta Liam Gillick izan ziren. Holzerek literatur testuak proiektatu nahi zituen hala museoaren azalaren gainean nola zubiaren azpian.

Gillickek, bere aldetik, koroa antzeko estruktura bat paratu nahi zuen zubiaren gainean.

BESTE BI
Frantses artista horren proiektua epai-

Irakasle, entrenatzaile eta monitoreentzat KIROL MATERIALA EUSKARAZ



pilates • yoga • futbola • aquagym • beroketa • eskubaloia • rugbia • saskibaloia • gimnasia erritmikoa • gimnasioko ziklismoa • igeriketa • judoa • karatea • patinajea • kirol egokitua • tenisa...



6€
fitxa bakoitza

%20 deskontua bilduma osoarengatik

Anoetako Kirol Etxean - Tel.: 943 458 357
Arrasateko Musakola Kiroldegian - Tel.: 943 771 677
www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz

Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuek argitaratuta

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz Instalador Autorizado


*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
*Porteros automáticos y videoporteros
*Aire acondicionado

Juan de Gispola nº9 Loma 48004 Bilbao Fax: 944111652-Tel: 656703855

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
www.bilbohiria.com

E R R I K A R I A K

E R R I K A R I A K



Ibai Barasoain: "Bizpahiru jokalaria beterano behar ditugu Hirugarren Mailari eusteko"

Ibai Barasoain gernikarra gazte hasi zen entrenatzen, lesioek futbola uztera behartu zuten eta. Santutxuren beheko mailetan lan egin ondoren, ia lehen taldea Hirugarren Mailara eraman zuen. Beste proiektu batzuk buruan, denboraldi honetan Mallonako aulkia Mitxeloren esku utzi zuen baina Santutxuren abentura ez zen bat ere ondo hasi. Horrela, abenduan, taldea salbatzera itzul zedin eskatu zioten eta 28 urtekin hor ari da entrenatzaile gaztea Santutxu futbol taldea zulotik ateratzeko lanean. Hobera egin du jokoak berarekin, baina saiklapenaren azpialdetik ezin iritenda dabilta. Egoera zaila izanagatik, Ibai Barasoain baikor mintzatu zaigu eta Santutxu Hirugarren Mailan urte luzez irauteko gai ikusten du.

Testua: Dabi Piedra

Santutxu taldea ez duzu egoera samurrean aurkitu, azkena zegoen eta. Zein premiazko aldaketa egin behar izan dituzue?

Lehenik eta behin, aspektu psikologikoan eragin behar izan dut, azken postuetan egonez gero inportantea da alderdi hori lantzea; taktikoki ere, kolokazioa hobetzea garrantzitsua dela uste dut.

Ekainean joan zinen, Santutxu Hirugarren Mailan utzita eta orain abenduan berriro etorri zarenean talde ia berbera aurkitu duzu, fitxaketa gutxi egiten baititu Santutxuk urtetik urtera. Hori abantaila izan da lanean hasteko orduan?

Jakina. Hala ere, taldea gaztegia delakoan, orain bizpahiru fitxaketa egiten saiatuko gara, beteranoak ekarrita, esperientzia eman-goz diotenak gure taldeari. Gazteak gauzak ondo ez doazenean ezkutatu egiten dira batzuetan eta aurpegia emango duen norbait behar dugu, ofizioduna.

Oraingoan, arrakasta baino ez duzu ezagutu Mallonako aulkian. Zu Santutxuren gidari zarela, noraino iritsi daiteke taldea?

Momentuz salbatzea baino ez dut buruan, horrek berez duen zailtasunarekin. Gu ahal dugun ondoen ari gara eta hala ere ezin dugu zulotik irten, beraz maila ez galtzea nahikoa da. Bi edo hiru beterano fitxatzea lortu behar dugu, zulotik irteten laguntzeko, bestela zail izango dugu.

Zuretzat lehenengo urtea da Hirugarren Mailan. Ezberdintasunik nabaritu duzu Herralde Mailako txapelketen eta Hirugarren Mailaren artean?

Zenbat eta kategoria altuagoa izan, erritmoa asko igartzen da, eta abiadura. Gainera, kalitatea ere hobea da eta talde guztiak, defentsiboki nahiz taktikoki, oso ondo kokatzen dira eta, horrenbestez, ez daukagu partidur errazik.

Santutxu bezalako talde apalarentzat, harrobiarekin lan egiten duena, gehiegi da Hirugarren Mailan jokatzeko?

Nik uste dut ezetz, agian urte hau salbatuta, finkatu egin gaitzke kategoria honetan eta jokalaria beteranoagoekin Hirugarren Mailan urte asko iraun genezake. Horretarako gauzak ondo egin behar dira, baina; eta badakigu gauzak txarto hasten direnean zaila dela pausua zuzentzea.

Santutxu bezala, Athletic ere ez da ondo hasi eta, Mallonan bezala San Mamesen ere entrenatzailea aldatzea izan da irtenbidea. Nola ikusten duzu Maneren Athletica?

Mane morroi esperimentatua da futbol munduan, joera negatiboa aldatu du eta hori garrantzitsua da. Psikologikoki ere lan ona egin

du, hala ere, Santutxu eta Athleticen kasuak ez dira berdinak, Athletic bere mailako talderik arrakastatsuenetako bat delako eta Santutxu apala da Hirugarren Mailan.

Salbatuko da orduan?

Bai, bai; nik uste dut baietz.

Zer etorkizun aurreikusten diozu Athletici hurrengo urteetan?

Nik ona, gauzak behar bezala eginez gero eta entrenatzaile onak edukita, Athleticcek ez luke arazorik izan beharko betidanik izan denari eusteko. Hori bai, zentzuz egin behar dira gauzak.

Alfonso Barasoainen semea

Ibai, Alfonso Barasoain entrenatzaile ezagunaren semea da. Aitak hainbat euskal talde entrenatu zituen eta Bigarren Mailaraino ere iritsi zen. Ibai semeak aitaren lana berdindu eta hobetzeko aukera du.

Alfonso Barasoainen semea izateak bultzatu zaitu hain gazterik entrenatzaile izatera?

Egia esan, nik futbolari izan nahi nuen eta Hirugarren Mailan ere jokatu nuen, baina lesio asko izan nuen. Horregatik, futbol mundua ez uztearren, entrenatzaile hasi nintzen, etxean ere irakasle ona nuen eta niretzat hobbya da hau, betidanik gustatu izan zait futbola, berdin da jokatzeko zein entrenatzaile izateko.

Aitak urte mordoa egin zuen entrenatzaile. Zuk, ordea, hain gaztea izanda, bere kurrikuluma txiki utziko duzu laster. Noraino iritea gustatuko litzaizuke?

Nahi dudak bakarra da, orain, hurrengo partidua irabaztea. Ez daukat etorkizuneko perspektibarik, nahi dut orain nagoen taldean ahalik eta ondoen egitea eta fitxatu nautenak nirekin pozik egotea. Nire jokalaria ere gustura egotea nahi dut eta hori da nire aspirazioa momentu honetan. Gero gerokoak.

Oharra: elkarrizketa osoa www.asapala.org web gunean.

SARRIMENDI (603 M.) ANDIKOA (BERRIZ)

Bilbotik Donostiarako bidean Durango pasatu ondoren Matiena auzoa igaro eta laster ikusiko dugu Markinarako errepidea. Bide hori hartu eta hiru kilometrora, 34 km. jartzen duen mugari ondoan bidegurutzetara egongo gara. Baserri baten ondotik ezkerretarantz ateratzen den errepidea hartu eta lehenengo beherantz eta ondoren aldapa gogorra igarota laster izango gara Andikoa auzoan. Autoa pilotalekuaren ondoan utzi genuen (A).

Aurrerantzean oinez jarraituko dugu errepidetik. Hamar minutu barru baserri multzo bat dago. Bertan, baserri eder biren artean sartuko gara ezkerretarantz iturria ikus dezakegula, eta gorago porlanezko pista hartuko dugu ezkerretarantz (B). Laster, txalet baten ondoan dagoen hesia zeharkatuz pista zabal bat hartuko dugu. Aurrerago gure norabidea eskuinerantz pinu artean doa. Ondoren eta lautada txiki batean, gaztainondo gazte batzuk aurkituko ditugu. Gaztainadia igaro eta gero pista zabaletik aldapan gora jarraituz, eta elektrizitate dorrea (C) ezkerrean utzita, hamar bat minututan lepo batera helduko gara (D).

Han etxola batekin egingo dugu topo. Eskuinaldean iturria, aska eta guzti, ikus dezakegu zabal batean. Iturritik apur bat beherago eta eskuin aldean dagoen bidea hartzekotan, pagadi eder bat igaro eta gero Done Kristobal basilizian egongo gara zabal handi batean (interesgarria da ikustea).

Gure mendira igotzeko berriz itzuliko gara iturri eta etxola ingurura. Etxolaren atzealdean dagoen pista hartu eta pixka bat igota bidebanatze batera helduko gara. Ez gara sartuko ez eskuinerantz ez eta ezkerretarantz doazen pistetatik, bien artean dagoen bidez zuzenetik baizik, gailurrerara heltzeko. Gailurreratik eta



eskuinerantz jarraituz, denbora laburrean egongo gara Sarrimendi (603 m.) tontorrean. Txartel kutxa harkaitzaren gainean dago.

JAKINGARRIAK

Guztira: 50 minutu.

Ikusitako zuhaitz motak:

300-400 metro: arkazia-ereñotza-urritza-haritz-izeia-nekosta-arte-pinua-gaztainondoa.

400-550 metro: gaztainondoa-haritz-pinua-pagoagorostia-lizarra-nekosta-arte.

IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL ARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

☎ 94 412 82 74

MESÓN
GURETXE

Santutxuko poteo gunean

OLENTZEROREN KOADRILA

Ehunka ume mahatsorri kantu eskera atera zen

Urterik urte, hutsik egin barik, eskola, ikastola eta ikastetxeetako umeak baserritarrez jantzi eta kalera doaz Olentzerori merezi bezalako ongi etorria ematera. Abenduaren 22an horrelaxe egin zuten, Uribarritik Otxarkoagaraino eta Zurbarandik Solokoetxeraino kaleak euskal kantuen oihartzunez bete zituzten. Horra, horra, gure Olentzero...



Zurbarango eskolako ume txikienek ez dute inoiz huts egiten. Hotzaren graduazioari zenbatekoa den erreparatu barik, Olentzerori kantatzeko beti prest.



Desiorik onenak euskaraz ez ezik hainbeste hizkuntzatan opatu zituzten **Uribarriko** eskolako ikasleek, goiko argazkian ederto baten ikusten den legez. Izan ere, gure ikasgelak gero kolore gehiago daukate, gero eta hizkuntza gehiago entzuten dira bertan, gero nabarragoak dira ikasle moduak.

Hori horrela izanda, euskal kultura, tradizioa eta hizkuntza denak batzeko modukoa dela begi bistan dago. Datozen lekutik datozela, denentzat Olentzero poz iturri, ilusio sortzaile.

Alboko argazkian, **Luis Briñas** eskolako ikasleak Olentzerori kantuan bai, baina ohiko moduan ez ezik aerobic estiloan ere bai. Zergatik ez? Bide asko dagoz 'Horra, horra, gure Olentzero...' kantatzeko eta lau haizetara zabaltzeko. Norberak gustukoena aukera dezala.



Santutxuko **Luis Briñas** eskolako umeek jolastokian batetik eta kalez kale bestetik, ozen kantatu zioten Olentzerori. Goiko argazkian, ume multzoa kantuan hasteko prest. Behekoan, ostera, Bastida plazan abesten eta behin behineko musika tresnak jotzen.



Txurdingako **Kirikiño** ikastolan ere ikasleek erakustaldia eman zuten. Txikerrenek ikastolako jolastokian egin zuten, gurasoen begirada hunkituak eraginez. Nagusiagoek Santutxu eta Txurdingako kaleetan abestu zuten. Ederto abestu gainera, Olentzerok merezi zuen-eta.



HORTZMUGAK EVA EVAREN KONTRA JARRI DU BERE ANTZEZLAN BERRIAN

Aireportuan 'kaiolatutako' hiru emakume dira 'Eva vs Eva' ko protagonistak



Testua: Ane Zabala
Argazkiak: Hortzmuga

Hortzmuga teatroak abenduaren 22an Galdakaoko Torre-zabal antzokian estreinatu zuen 'Eva vs Eva' antzezlan. Azaroan erdaraz aurkeztu bazuen ere, oraingoan euskarazko bertsioa estreinatu dute. Kasualitatea abiapuntu duen komeria da 'Eva vs Eva'. Eva Goñik, Eva Goirik eta Eva Goitik aireportuan elkar ezagutuko dute. Izenak batu eta abizenak bereizten ditu. Helburuak batzen ditu ere; Parisera hegazkina hartzeko asmoz iritsi dira hirurak aireportura. Baina akats informatiko baten ondorioz, txartel bakarra dago hirurentzat.

Izaeraz hiru Eva ezberdin dira, Eva Goñi emakume perfektua eta bikaina, Eva Goiri zalantzas betetako emakumea eta Eva Goiti emakume ziurra, dei bakar batez hegaldi bat geldi dezakeen emakume horietakoa. Hiru pertsonaiek estrategiaz betetako gatazka hasiko dute hegaldiko txartel bakarra lortzearren. Hortzmuga konpainiako Arantza Goikoetxea, Izpiñe Soto eta Argia Gardeazabal aktoreek gorpuzten dituzte Eva izeneko hiru emakumeen rola.

Oraingo honetan Hortzmugak antzo-



kietan egiteko antzezlan egin du. Ideiak berak eraman ditu kaletik antzokietara. Emakumeen beldurrak eta irrikak erakutsi nahi izan dituzte antzezlan honetan, erruduntasunari buruz hitz egin nahi izan dute. Sentimendu hori ikusteko eta sentitzeko hiru modutan aurkeztuta dago lana. Argia Gardeazabal aktoreak adierazi digunez; "oso gai serioari buruz hitz egin nahi genuen; emakumearen erruduntasunari buruz, baina komeria puntua galdu gabe. Ikusle goa egiteko aukera eman nahi genion, eta emakumeen portaera jakin batzuk desmitifikatu aldi berean". Komeria arina da 'Eva vs Eva', erritmo bizikoa. Hori lortzeko hiru aktoreak oholtza gainean zuzenean kantatu eta dantzatu egiten dute, momentu batzutan kabaret itxura hartuz aireportuko terminalak.

Antzezlan hau aurrera eramateko lan talde handia elkartu da Hortzmuga taldeko aktoreekin batera. Sormen prozesua hiru aktore eta Nuria Gutierrez zuzendariaren artean egin badute ere, gidoia Angel Mirouk idatzi du. Euskarazko egokipena Julen Gabiria idazleak atondu du. Denbora arazoak zirela eta erdaraz estreinatu zuten lehenengo baina euskarazko egokipenarekin pozik daude. "Julenek itzulpena barik moldaketa egin du eta bere indarra eman dio testuari. Hizkuntzarekin jolastu egin du eta pertsonaia bakoitzari hizkera bat eman dio: euskaldun berri bat, euskara zuzena erabiltzen duena eta kaleko hizkera erabiltzen duen pertsonaia dira"

Zurbarabarrin hamazazpi urte bete dute Hortzmuga taldekoek 'antzerki aktiboa' egiten, umorea erabiliz egoera batzuk salatzen eta errebindikatzeko asmoarekin. Orain arte lortutako harrera-

Antzerkilariak Udalarekin ika-mikan

Bilbo Antzerki Dantza (BAD) jaialdia ospatu berri da. Jaialdia aitzakia Bilbok bertako taldeentzako dituen espazio eta azpiegitura gutxi dagoela salatuz Gara egunkarian iritzi artikulu batzuk agertu dira Udalaren antzerki politika kritikatu. Gutun horien ika-mika aprobetxatuz Bilboko antzerkilari profesionalak batu eta elkarte bat sortu dute. Hasieran profesionalen artean eztabaida egin dute, behar eta nahiak neurtzeko. Bilboko arte eszenikoen profesionalak argi ikusten dute: Bilbon espazioa falta dago, bertako konpainiak toki falta dute bai antzezlanak aurkezteko eta baita entseguak eta prestaketa burutzeko. Arriaga antzokia baino ez dago eta programazioa kanpoko taldeekin osatzen da. Bilboezena txikia da eta profesionalentzat ez dago tokirik. Bertoko antzerki gutxi programatzen da orokorrean.

Gabezia hauei aurre egiteko Bilboko antzerki profesionalen dihardutenak Udalarik elkartzeko eskaera egin diote. Helburua komisia sortzea da etorkizunean bertoko profesionalak hitza eta parte hartzea edukitzeko Bilboko antzerkian.

rekin pozik daude Hortzmugakoak baina emanaldi gutxi ateratu dira; hori ez dago beraien esku. Datorren hilabeteetan, urtarilaren 19an, berriro 'Eva vs Eva' antzezlan ikusteko aukera Leioako Kultur aretoan izango dugu. Ez galdu merezi du eta.


ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe



Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO

Telf. 94 411 99 33

GOÑIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

horoskopoa

- Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**
Ikatzaren baltza ondo dekozu, bai horixe! Txarto portatu izana horregatik izan ete da?
- Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**
Hotzak ondo kontserbaten ei dau. Baina hobetu ez dau egin, aditu dozu?
- Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**
Gabonzaharrekoa itzela, hi. Baina benetan akordatzen haz?
- Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**
Inmobiliaria arloan sartu behar dozu orain? Dardar egin daiala adreiluaren mafiak...
- Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**
Ederra egin dozu. Orain krack bat zarala pentsatu behar dabe. Eta ez zara...
- Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**
Mendi altuan edurra, sudur puntan edurra, kalimotxo basoan edurra, parranda amaitu arte, egurra!
- Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**
Sasoitsu zabilz gero! Dendarik dendako maratoian inoizko markarik onena egin dozu...
- Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**
Olenzerori ligeak eskatzea be! Benetan uste dozu Olenzerok sekulan ligatu dauenik?
- Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**
Aspaldiko lagunak ikusi, familia artoak egon, erosketak egin, gabon kantzak, futbolik ez, egundoko jan-edanak,... Berba baten: gorrotagarriak.
- Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**
Opari teknologikoak baino ez dozuz euki. Orain beharrean oporrak eskatu beharko dozuz zelan bizten diran ikasteko.
- Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**
Urtebarri ekarri txarri belarri, dekonak ez dekonari... Batez be azken zati horri erreparatu, mesedez.
- Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**
Lastimea Kopatik kanpo gelditu izana. Osterantzean, baietz aurten gabarra atara!

agenda

URTARRILAK 5
DOCTOR DESEO. SANTANA 27
ARETOA. 24:00ETAN.

URTARRILAK 7
SEI IZAR HERRI KROSA.
BASARRATE. GOIZEKO 11ETAN.
SANTUTXUKO FAMILIA
ELKARTEAK ANTOLATUTA.

URTARRILAK 13
HERRI NORTEREN 25 URTEURRE-
NA. BLAGGERS + LOSTRES PUN-
TOS + ATARASSIAGRÖP.
SANTANA 27 ARETOA.

URTARRILAK 14
MUGARRILUZE. ELGEA, ARABA.
MENDI TXANGOIA.
SANTUTXUKO MENDI TALDEA.

URTARRILAK 18
THE BONGOLIAN. THE CHERRY
BOPPERS. KONTZERTUA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

URTARRILAK 19
PAUL COLLINS BEAT.
KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA.
22:00ETAN.

URTARRILAK 19
ILEGALES + DISCIPULOS DE
DIONISIOS + MACARRADA.
IZANGOANEN 25. URTEURRENA.
SANTANA 27 ARETOA.

URTARRILAK 24
TXANOGORRITXU. GLU-GLU
TALDEA. ARRIAGA ANTZOKIA.
11:30ETAN.

URTARRILAREN 23-27
BILBOKO GAY/LESBO/TRANS
ZINEMA JAIALDIA. BILBOROCK
ARETOA.

